

Parte-hartzeko eskubidea

Ingurumenaren alorrean herri-erakundeek erabakiak hartzeko unean duten parte-hartzea: **norbanakoen eskubideak eta administrazio publikoen betebeharrak**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAIA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



Parte-hartzeko eskubidea



aurkibidea

Parte-hartzeko eskubidea	1
Sarrera	6
Eskubide eta betebeharrak legeetan	8
Zer egin daiteke parte-hartze eskubidea urratuz gero?	10
Parte-hartzea, ingurumenarekin lotutako plan, egitasmo eta xedapen orokorrak egiteko prozeduretan	12
Ingurumenarekin lotutako plan, egitasmo eta araei dagokienez agintari publikoek dituzten betebeharrak	13
Berriazko betebeharrak plan eta egitasmoen ingurumen-ebaluazio estrategikoan (ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioa)	14
Plan edota egitasmoa sustatzen duen organoaren betebeharrak	14
Plan edota egitasmoa ebaluatzeko ardura duen ingurumen-organoaren betebeharrak	14
Berriazko betebeharrak, hidrologia-plangintzari dagokienez	15
Arroetako plan hidrologikoak egin eta onartzea	17
Plan Hidrologiko Nazionala egitea	18
Izaera orokorreko xedapenak garatzerakoan kontuan hartu beharreko betebeharrak espezifikoak	19
Proiektuen ingurumen-eragina ebaluatzeko prozeduretan parte hartzea	20
Proiektua baimentzeko eskumena duen organoaren betebeharrak (organo substantiboa)	21
Herritarrekiko betebeharrak	21
Pertsona interesdunen aurreko betebeharrak	22
Ingurumen-baimen integratuetako prozeduretan parte hartzea (Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruz legerian araututako baimenak)	25
Autonomia Erkidegoko organo eskudunaren betebeharrak, ingurumen-baimen integratua emateari dagokienez	25
Betebeharrak orokorrak	25
Herritarren aurreko betebeharrak	25
Pertsona interesdunen aurreko betebeharrak	27
Informazio publikoa bestelako ingurumen-baimenetan	28
Genetikoki Eraldatutako Organismoak (GEO) borondatez askatzeko baimena	29
Jarduera sailkatuentzako udal-lizentzia	29
Emakida eta baimenen inguruko prozedurak, uren arloari dagokienez	29
Uren emakida orokorra, jabari publiko hidraulikoaren ustiapen orori zuzendutakoa	29
Jabari publiko hidraulikoan isurketak egiteko baimena	30
Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa babesteko zorgunea erabiltzeko eta lehorretik itsasora isurketak egiteko baimenak ematea	30
Hondakinak ekoiztu eta kudeatzeko baimena	31

1

sarrera



“Pertsona fisiko nahiz juridiko guztiek dute ingurumena artatzeko betebeharra.”¹

“Pertsona guztiek dute ingurumen osasungarri bat erabili eta ingurumen horretaz gozatzeko eskubidea; zentzu horretan, Administrazio publikoei dagokie eskubide horren egikaritzea bermatuko duen ingurumen-politika egokiak sustatzea.”

“Pertsona guztiek dute ingurumena babesteko erabakietan parte-hartzeko eskubidea, bai zuzenean bai ingurumenaren babeserako elkarteen bidez.”²

“Ingurumenarekin lotutako arazoei aurre egiteko modurik egokiena pertsona interesdunen parte hartzea bidezkoa da, bakoitzari dagokion mailan.”³

Ingurumenean zuzenean nahiz zeharka eragiten duten gaien inguruko erabakiak hartzeko prozedurek, bi ikuspuntu desberdinetatik dute eragina herritarren gain:

- ✓ **Interesdunei:** Legezko interes indibidual nahiz kolektiboen titularrak, hartuko den erabakiak zuzenean kalteku nahiz eragiten dituenak (**esaterako, ingurumenaren alde lanean diharduten elkarreak**).
- ✓ **Herritarrek, oro har. Pertsona guztioi dagokigun ondasuna** da ingurumena; beraz, pertsonak dira ingurumen hori babesteko unean interesik handiena dutenak, norberaren burua zaintzea bezalako delako; izan ere, natur ingurunea da gizarteak sostengatzen dituen agertokia, pertsonen bizi-kalitatean eragin zuzena duena (**interes zehaztugabea**).

Egun bizi ditugun ingurumen-arazoei Administrazioen eta gizarte osoaren **lankidetzaren eta konpromisoa** eskatzen dute. Gizartean eragina izan dezaketen gai publikoen inguruan herritarrek, parte hartzearen bidez, garrantzizkoak izan daitezkeen iritzi eta kezkek adierazi ditzakete, agintariek kontuan har ditzaten; modu horretara, erabakiak hartzeko prozesuaren **erantzukizuna** eta **gardentasuna** bermatzeaz gain, herritarrek **kontzientzia hartzearen** alde egiten da ingurumenari buruzko arazoei dagokienez. Gainera, herritarren babesa ere lortzen da, hartutako erabakien inguruan.

¹ Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorren 4. art.

² Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorren 3. art.

³ Ingurumen eta Garapenari buruzko Rioko Deklarazioaren 10. printzipioa

Aarhus-eko hitzarmena, 2001eko urriaren 30az geroztik indarrean dagoen nazioarteko hitzarmena da. Horren premisa nagusia honakoa da: ingurumenarekin lotutako arazoengatik inguruan zenbat eta inplikazio eta sentsibilizazio publiko handiagoa izan, ingurumena are eta gehiago babestea lortzen da. Hitzarmenak egungo nahiz etorkizuneko belaunaldietako pertsona oro eskubideak babesteko laguntza ematea du helburu, osasunerako eta ongizaterako egokia den ingurumen batean bizitzeko aukera emanez. Norbanakoen eskubideak bermatu eta agintari publikoei betebeharrak ezartzen dizkie, honako gaien inguruan: informazioa eskuratzea, parte-hartze publikoa eta justizia atzitzea.

Europako Gobernu guztiak dute **Aarhus-eko Hitzarmenean** eta **Europako Zuzentzailearen** jasotako printzipioak garatzeko betebeharrak.

Aarhus-eko Hitzarmenaren edukia, ostean etorri diren sektorekako arauetan islatu da, honako alorretan:

- Urak;
- Plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioa;
- Genetikoki eraldatutako organismoak;
- Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa;
- Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratua.

Era berean, kontuan hartu beharra dago, ingurumenarekin lotutako administrazio-prozedurek, oro har, jendaurreko informazio-tramitea barne hartzen dutela (esaterako, isuri bat egiteko baimena ematen duen espedienteak).

ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK LEGEETAN

Legeak aintzatetsi egiten du ingurumenean zuzenean nahiz zeharka eragiten duten gaien inguruan erabakiak hartzeko prozeduretan parte hartzeko **eskubidea**; eta Administrazio Publikoari dagokien prozedura horiek sortu edota onartzea.

Edozein pertsonak du (**herritarrek oro har**) parte hartzeko eskubidea; gainera, onartutako erabakiaren ondorioz kalteren bat jasan dezaketen legezko interesak edukiz gero (norbanakoak nahiz kolektiboak), pertsona interesdun izaera izango du eta, horren arabera, eskubide gehigarriak izango ditu parte-hartze maila batzuetan. **Edozein kasutan ere, ingurumenaren babesa helburu duten irabazteko asmorik gabeko elkarteek (ingurumen GKE-ek) pertsona interesdun izaera izango dute.**

Legeak ez du aurrez zehazten zeintzuk diren parte hartzeko mekanismo zehatzak, eta herritarren **parte-hartze erreal eta eraginkorra** sustatzeko **eginbehar** orokorra ezarri baino ez du egiten. Horretarako, dagozkion prozedurak tramitatzeko unean Administrazio publikoek bete beharreko **gutxieneko baldintza** batzuk ezarriko ditu:

- ✓ Herritarrak nahiz pertsona interesdunak behar bezala **informatzea**, bai erabaki beharreko gaiak, bai parte-hartzeko eskubideari nahiz eskubide hori egikaritzeko moduari dagokionez.
- ✓ Pertsona interesdunak **entzutea**, eta prozeduraren hasierako **faseetan** haien iritzia **kontuan hartzea**, baita prozedura hasi aurretik ere.
- ✓ Prozesua bukatzean hartutako erabakia **justifikatzea**, bai eta parte-hartze tramitea gauzatzeko modua ere.

Parte-hartzeko eskubide orokorra honetan datza:

- ✓ Ingurumenari zuzenean nahiz zeharka eragiten dioten gaien inguruan erabakiak hartzeko prozeduretan **modu eraginkor eta errealean parte-hartzea**; Administrazio Publikoari dagokien prozedura horiek sortu edota onartzea. Prozedura horiek bat datoz jardura publikoaren honako hiru esparru hauekin:
 - Ingurumenean eragina duten jardura zehatz batzuen inguruko **baimenak**⁴ (**kutsaduraren prebentzio eta kontrol integralari buruzko legerian araututako baimenak, genetikoki eraldatutako organismoen buruzko legerian araututako administrazio-tituluak, ingurumen-eraginari buruzko aitorpenak**);
 - ingurumenari buruzko planak, egitasmoak eta politikak egin, onartu eta aldatzea (hemen sartzen dira, **ingurumena ebaluatzeko estrategien eta uren arloko plangintzaren mendeko planak**).

- ingurumena babestea helburu duten **erregelamenduzko xedapenak** edota **tresna arauemaile** orokorrak egin, aldatu eta berrikustea.
- ✓ Parte hartu ahal izateko beharrezkoa den **informazioa alde aurretik** eskura izatea.
- ✓ **Parte hartzeko eskubideari** buruzko nahiz eskubide hori egikaritzeko moduei buruzko **informazioa** jasotzea, bai eta iradokizunak egin edota alegazioak aurkezteko jo beharreko administrazio publiko eskudunari buruzkoa ere.
- ✓ **Prozeduraren hasierako faseetan**, artean aukera dagoen bitartean eta erabakiak hartu aurretik, iradokizunak nahiz iritziak adieraztea.
- ✓ **Hartutako erabakien** eta erabaki horiek oinarrian izan dituzten **arrazoi** eta gogoeten inguruko informazioa jasotzea. .

⁴ Uren arloko baimenak, araudi berezien bidez araupetzen dira.

ZER EGIN DAITEKE PARTE-HARTZE ESKUBIDEA URRATUZ GERO?

Herritarren parte-hartzeko eskubidea urratuz harturiko ingurumenarekin lotutako administrazio-erabakiak errekurritzeko modukoak dira. Parte-hartze eskubidea hiru mailatan urratu daiteke ingurumen arloko erabakiak hartzeko unean:

- ✓ Parte-hartzeko eskubidea egikaritu ahal izateko behar den informazioa (informazio osoa, egiazkoa eta ulergarria) ematen ez denean.
- ✓ Administrazio-prozeduran parte-hartzeari trabak jartzen zaizkionean, hala nola:
 - Parte-hartzeko ezarri diren epeak ez errespetatzea.
 - **Herritarrei informazio** guztia ez ematea.
 - Prozeduraren hasieran parte-hartzea eragozte (aukera eta alternatiba guztiak zabalik daudenean).
 - Hartutako erabakien edota parte-hartzearen oinarriari buruzko informazioziorik ez ematea herritarrei.
- ✓ Prozeduraren fase jakin batzuetan parte hartu ahal izateko legezatasuna edota akreditazioa eskatzen zaienean herritarrei, horretarako beharrik ez izan arren.

Norbaitek uste badu agintari publiko bati egozteko moduko egintza edota omisioren baten bidez parte-hartze publikoari buruz legeak aintzatesten dituen eskubideak urratu zaizkiola, Administrazio-prozedura Erkideari buruzko Legean⁵ eta gainerako legeria aplikagarrian jasotako **administrazio-errekurtsoak** jarri ahal izango ditu, bai eta administrazioarekiko auzibideari buruzko Legean⁶ aurreikusitako **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** ere, hala badagokio.

⁵ Azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

⁶ Uztailaren 13ko 29/1998 legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzkoa.



Parte-hartzea, ingurumenarekin lotutako plan, egitasmo eta xedapen orokorrak egiteko prozeduretan



INGURUMENAREKIN LOTUTAKO PLAN, EGITASMO ETA ARAUEI DAGOKIENEZ AGINTARI PUBLIKOEN DITUZTEN BETEBEHAR OROKORRAK

- ✓ **Herritarren artean interesdunak** nortzuk diren zehaztea, behar besteko aurrerapenarekin, prozesuan modu eraginkorrean parte-hartzeko aukera izan dezaten.
- ✓ Plan, egitasmo edota arauen proposamenen (edota horien aldaketa nahiz berrikuspenen) inguruko **informazioa herritarrei** ematea (komunikabide egokien bidez, esaterako, jakinarazpen publikoak edo baliabide elektronikoak).
- ✓ Proposamen horiei buruzko informazio egokia **herritarren esku jartzea** (modu ulergarrian), bai eta erabakitze-prozesuetan parte-hartzeko eskubideari eta iradokizunak nahiz alegazioak aurkezteko administrazio publikoari buruzko informazioa ere.
- ✓ Plan, egitasmo edota xedapen orokor horien inguruan erabakiren bat hartu aurretik, eta **aukera guztiak zabalik daudenean**, herritarrei iradokizunak eta iritziak adierazi ahal izateko eskubidea bermatzea.
- ✓ Erabakiak hartzeko unean, herritarren parte-hartzeari buruzko emaitzak **kontuan hartzea**.
- ✓ **Hartutako erabakien** eta erabaki horiek **oinarrian** izan dituzten arrazoi eta gogoeten inguruko **informazioa herritarrei ematea**, parte-hartze publikoaren prozesuari buruzko informazioa barne.



BERARIAZKO BETEBEHARRAK PLAN ETA EGITASMOEN INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOAN (ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioa) ⁷

Plan edota egitasmoa sustatzen duen organoaren betebeharrak

✓ Herritarren esku jartzea:

Kontsulta-fasean:

- plan edota egitasmoaren aurre-bertsioa;
- ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena⁸. Ulegarria izateaz gain, teknika ez den laborpen bat ere jaso behar du.

Dagokion plana edo egitasmoa onartu ostean:

- onartutako plan edo egitasmoa;
- kontsulten emaitzak kontuan nola hartu diren jasotzen duen dokumentazio zehatza (horren inguruko laborpen ez-teknika barne)

✓ Interesdunei kontsulta:

- gutxienez 45 eguneko epea egongo da plan edota egitasmoaren aurre-bertsioa aztertu (ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena barne) eta horren inguruan oharrak egiteko.

Plan edota egitasmoa ebaluatzeko ardura duen ingurumen-organoaren betebeharrak

- ✓ informazioa eskatu eta kontsultak egiteko modalitateak **definitzea**;
- ✓ interesdunak nortzuk diren **identifikatzea**;
- ✓ ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenaren norainokoa eta xehetasun-nahiz zehaztapen-maila zehaztu ahal izateko **interesdunei kontsulta egitea**;
- ✓ **Interesdunei egindako kontsulta-prozesuaren berri ematea, baita ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenaren xehetasunak eta zehaztapen maila sustatzaileari jakinarazteko balio duen dokumentuarena ere.** Dokumentu horrek, gainera, honakoak hartuko ditu barne: ingurumenari buruzko irizpide estrategikoak, ingurumen arloko helburuen adierazleak eta kasuan-kasuan aplikatzeko moduko iraunkortasun-printzipioak.



⁷ Ingurumenean eragin esanguratsua izan dezaketen plan eta egitasmoak (eta horien aldaketak), administrazio publiko batek sortu eta onartuak, hala agintzen duelako legezko edo erregelamenduzko xedapenen batek, Ministroen Kontseiluaren akordioak edota autonomia erkidego bateko Gobernu Kontseiluak. (Apirilaren 28ko 9/2006 Legea, plan eta egitasmo

zehatz batzuek ingurumenean duten eraginari buruzkoa. BOE BOE 29.04.06)

⁸ Plan edo egitasmoari buruzko ingurumen-azterlanari buruzkoa.

BERARIAZKO BETEBEHARRAK, HIDROLOGIA-PLANGINTZARI DAGOKIONEZ

Uraren Esparru Zuzentarauak exijitzen duenez⁹, Estatu kideek alderdi interesdun guztien parte-hartze aktiboa sustatu behar dute Zuzentaruak aplikatzeko unean eta, batez ere, arroen hidrologia-planak egin, berrikusi eta eguneratzerakoan. Modu horretara, mugape hidrografikoan Uraren Esparru Zuzentaruaren arduraduna den arroko erakundeak (Konfederazio Hidrografikoak), lankidetzan jardun beharko du plan hidrologikoaren ondorioz jarduera eta interesetan kalteak jasaten dituzten eragileekin, bai eta planean bertan jasota dauden helburuak betetzeko beharrezkoak diren eragileekin ere.

Uraren Esparru Zuzentaruako plangintza-prozesuko herritarren parte-hartzeak hiru inplikazio-maila izan beharko ditu:

- ✓ **Informazioa hornitzea:** Parte-hartze mailarik oinarrizkoena da, eta informazioa eskuratzeko aukera ematea eta informazio hori alderdi interesdun guztiei helaraztea du helburu.
- ✓ **Herritarrei kontsulta.** Hemen herritar guztiek dute parte hartzeko aukera, administrazioaren hasierako proposamenen aurrean erreakzionatuz. Prozesu honek dirauen artean, kontsultatu diren agenteen esperientzia, iruzkin, uste eta ideiak jaso behar dira.



⁹ 2000ko urriaren 23ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/60/EE Zuzentaruak, uren politikaren arloan erkidego mailako jarduera-esparrua ezartzen duena. 14.1 artikulua. EEAO L327, 2000.12.22

- ✓ **Parte-hartze aktiboa.** Uraren kudeaketan betidanik interesa izan duten alderdiez gain, gizarte osoa tartean sartzea du helburu, foro edota lantalde zehatzen bidez.

Uraren Esparru Zuzentaruak eskatzen du, lehenengo parte-hartze maila biak bermatuta egotea, eta hirugarrena, berriz, sustatuta.

Uraren Euskal Legeak¹⁰, Uraren Esparru Zuzentaruak ezarritako baldintzak jasotzeaz gain, pertsona eta erakunde erabiltzaileen parte-hartzearen inguruko printzipioak ere jasotzen ditu, uraren politika sortu eta aplikatzerakoan.

Uraren Esparru Zuzentaruaren plangintza-prozesuaren arabera egindako plan hidrológicoek dituzten helburu eta izaeragatik "ingurumenean efektu esanguratsuak dituzte" eta, beraz, ingurumenaren ebaluazio estrategikoa egin behar zaie.

Plangintza Hidrológikoko Araudiak herritarren parte-hartzea modu efektiboan gauzatzeko beharrezkoak diren baldintzak ezartzen ditu arroetako plan hidrológicoak egin nahiz onartzerakoan, eta Plan Hidrológico Nazionala egiterakoan.



¹⁰ Ekainaren 23ko 1/2006 Legea, Urei buruzkoa. EHAA, 2006.7.19

¹¹ Uztailaren 6ko 907/2007 Errege Dekretua, Planifikatze Hidrológicoaren erregelamendua ezartzen duena. BOE 07.07.07

Arroetako plan hidrológicoak egin eta onartzea

- ✓ Arroetako erakundeek planifikatze-prozesuan parte-hartze publiko eraginkorra sustatzeko antolamendu eta prozedura-proiektua egingo dute; honako edukiak jaso beharko ditu:

- Informazio publiko, kontsulta publiko eta parte-hartze publikoari buruzko prozeduren **antolaketa eta kronogramak**.
- Plan hidrológicoaren ingurumenaren ebaluazio estrategikoari dagokion prozesuaren **koordinazioa** eta aurreko prozedurekin duen lotura.
- Prozesuaren fase desberdinetan erabili beharreko **parte-hartzeko metodo eta tekniken** azalpena.

- ✓ Planak egiteko prozesuak bere gain hartuko ditu 27/2006 Legean ezarritako baldintzak; batez ere, plangintza prozesuan funtsezko informazioaren emate aktiboari dagokionak. Informazio horrek eskuragarri egon beharko du bai paperean, bai formatu digitalean, Ingurumen Ministerioaren orrialde elektronikoan eta mugape hidrológikoko bakoitzaren web orrian.

- ✓ **Herritarrei** honako hauen gainean egingo zaie **kontsulta**:

- Arroetako planak egiteko lan-egitasmoaren proposamenari buruzko agiriak.
- Lan-egitasmoan barne hartu den mugape hidrológikokoari buruzko azterlan orokorra.

- uren kudeaketaren inguruko gai garrantzitsuen eskema.
- arroetako plan hidrológicoaren proiektua.

Aurreko horiei, prozesua errazteko bestelako dibulgaziozko dokumentuak ere gehitu ahal izango zaizkie.

Dokumentu horiek eskuragarri egon beharko dute bai **paperean**, bai **formatu digitalean**, Ingurumen Ministerioaren orrialde elektronikoan eta mugape hidrológikoko bakoitzaren web orrian.

- ✓ Dokumentu bakoitza publikoki kontsultatzeko prozesuak **sei hilabete** iraungo du, **gutxienez**. Kontsulta publikoaren bidez egindako ekarpenak, txostenetan jaso, eta plangintza-prozesuari gehituko zaizkio, planaren eranskin moduan.
- ✓ Arroetako erakundeek plangintza-prozesuan interesa duten alderdien **parte-hartze aktiboa** sustatuko dute, parte hartze horretara herritar guztiak gonbidatuz.
- ✓ Parte-hartze horri begira, **foroak edo lantaldeak** sortu ahalko dira; horietan, alderdi interesdunetz gain, uren arloan esperientzia handia duten adituek ere parte hartu ahalko dute, plan hidrológicoak egiteko orduan aholkularitza eskainiko dutenak.



Plan Hidrologiko Nazionala egitea

- ✓ Plan Hidrologiko Nazionala egiteko orduan, betiere, herritarren parte-hartzea bermatuko da, **plangintza-prozesu osoan zehar**, hau da, aurretiazko kontsulta faseetan zein Planaren garatze eta onartze edo berrikuste faseetan.
- ✓ Plan Hidrologiko Nazionalaren proiektu-proposamenak eskuragarri egon beharko du, bai **paperean**, bai **formatu digitalean**, Ingurumen Ministerioaren orrialde elektronikoetan.
- ✓ **Alderdi interesdunei** Plan Hidrologiko Nazional horren proiektu-proposamenari buruzko **zuzeneko kontsulta** egingo zaie. Kontsulta publiko horren prozesuak, **gutxienez, sei hilabete** iraungo du. Kontsulta horren bidez herritarrek egindako ekarpenak, txosten batean jaso, eta plangintza-prozesuari gehituko zaizkio.



IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK GARATZERAKOAN KONTUAN HARTU BEHARREKO BETEBEHAR ESPEZIFIKOAK

27/2006 Legean jasotako betebehar orokorrez gain, 8/2003¹² Legeak ezartzen du, izaera orokorreko xedapenek **entzunaldi tramite** bat izango dutela; xedapenaren izaerak hala gomendatzen duenean, gainera, **jendaurreko informaziopean** ezarriko da (8. art.).

Entzunaldi tramite hori egin gabe utziko da, interes publikoak hala eskatzen duenean soilik; gainera, kasuan-kasuan egiaztatu beharko da.

Entzunaldia zuzenean edota legeak aintzatetsitako erakunde eta elkarten bidez egingo da, baldin eta azken horiek kaltetutako pertsonak bildu edota ordezkatzeko badituzte, eta horien helburuak xedapenaren xedearekin erlazionatuak baldin badira. Tramite hori betetzeko aukeratutako modalitatea arrazoitu eta justifikatu egin beharko da.

Pertsona interesdunei entzutea ez da beharrezkoa izango, aipatu erakunde eta elkarteek organikoki (esaterako, batzorde edota aholku-kontseilutan) edo txosten nahiz kontsulta espezifikoen bidez parte hartzen dutenean.

Entzunaldia eta, hala badagokio, informazio publikoa, **arrazoizko epean** egingo da, eta **inoiz ere ez hogeita egun balioduneko baino epe laburragoan**. Hala ere, epe hori hamar egun baliodunera murriztu ahalko da, hori justifikatzen duten arrazoiak daudenean.



3

Proiektuen ingurumen-eragina ebaluatzeko prozeduretan parte hartzea



PROIEKTUA BAIMENTZEKO ESKUMENA DUEN ORGANOAREN BETEBEHARRAK (ORGANO SUBSTANTIBOAK)

Administrazio Publikoek **sustatu eta bermatu** egingo dute **persona interesdunen** parte hartzea, ingurumen-eraginaren ebaluazioa behar duten proiektuak baimentzeko prozeduren tramitazioan; era berean, parte hartze hori **errealia eta eraginkorra** izateko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte.

Proiektuaren sustatzaileak **kontuan hartu** beharko ditu kontsulta eta informazio publiko horren ondorioz lortutako emaitzak; organo substantiboak ere gauza bera egin beharko du, proiektua baimentzeari dagokionez.

Herritarrekiko betebeharrak

✓ Ingurumen-eraginari buruzko azterlana **informazio-publikoko** tramitepean jartzea (30 egunez gutxienez), ingurumen eraginaren ebaluaziopeko proiektuaren edukia, zabalera eta definizioa zehazteko aukerak artean zabalik dauden faseetan.

✓ Herritarrei informazioa ematea, baimen-prozedurarekin zerikusia duten alde garrantzitsuetan eta, batez ere:

- Proiektua baimentzeko eskaera.
- Proiektua ingurumen-eragina ebaluatzeko prozedura bati lotuta dagoela jakinaraztea, bai eta, kasuan kasuan, mugaz haraindiko kontsulten¹³ inguruan aurreikusitakoa aplikatu daitekeela.
- Honakoak identifikatzea:
 - Prozeduraren inguruko ebazpena emango duen organo eskuduna.
 - Informazio egokia eman dezaketen organoak.
 - Oharrak, alegazioak eta kontsultak jaso ditzaketen organoak, bai eta horiek guztiak aurkezteko epea.

¹³ Proiektuak beste Estatu bateko ingurumenean efektu esanguratsuak izan ditzakeela uste denean.

- Erabakien izaera eta, hala badagokio, hartuko diren erabakien inguruko zirriborro edota proiektuena.
- Ingurumen-eraginari buruzko azterlanean jasotako informazioaren erabilgarritasunari buruzko adierazpena, bai eta informazio hori herritarren eskura jarriko den data eta lekuari buruzkoa ere.
- Parte-hartzeko modalitateen identifikazioa.

Pertsona interesdunen aurreko betebeharrak

✓ Interea duen orori **informazioa ematea**, dagokion prozeduran parte-hartzeko eskubideari dagokionez eta eskubide hori egikaritu dezaketen uneari dagokionez. Parte-hartze horri dagozkion ohar eta alegazioak zein agintari eskuduni igorri behar zaizkion adieraziko du jakinarazpenak, bai eta horretarako dagoen epea ere (30 egunetik gorakoa, betiere).

✓ Interesdunen **esku jartzea**:

- **Ingurumen-eraginari buruzko azterlanean** jasotako informazio guztia.
- **Informazio publikoko tramitea baino lehen** organo substantiboak jasotako dokumentazio garrantzitsu guztia.
- **Behin informazio publikoko tramitea bukatuta** soilik eskura daitekeen bestelako informazio oro, baldin eta proiektua exekutatzeko orduan garrantzizkoa bada.

Organo substantiboak ez badu ingurumen-eraginari buruzko azterlana informazio publikoko tramitepean jartzen ingurumen-organoak finkatutako epean, espedientea artxibatu egingo da; kasu horretan, nahitaez egin beharko da berriro, hasiera-hasieratik, ingurumen-eraginari buruzko ebaluazioa.



4

Ingurumen-baimen integratuetako prozeduretan parte hartzea

(Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruz legerian araututako baimenak)



AUTONOMIA ERKIDEGOKO ORGANO ESKUDUNAREN BETEBEHARRAK, INGURUMEN-BAIMEN INTEGRATUA EMATEARI DAGOKIONEZ

Administrazio Publikoek **persona interesdunen parte hartze erreal eta eraginkorra** sustatuko dute, honako kasuetan:

- Instalazio berriei ingurumen-baimen Integrala ematen zaienean.
- Instalazioetan aldaketa esanguratsuren bat egiten denean.
- Instalazioren batean Ingurumen-baimen Integratua berriztatu edo aldatzen denean.

Parte hartze hori prozedura bakoitzaren **hasierako faseetatik** gauzatzen dela bermatu beharko dute.

Betebehar orokorrak

- ✓ **Herritarrei informazioa** nola eman eta interesdunei **kontsulta** egiteko **modalitatea** zehaztea.

- ✓ Fase desberdinetarako **arrazoizko epeak** jartzea, herritarrei informazioa emateko denbora nahikoa eskainiz, eta interesdunek erabakiak hartzeko prozesuan modu eraginkorrean parte hartzeko aukera izan dezaten.
- ✓ Eskaerari erantzuna emateko orduan, egindako kontsulten emaitzak **kontuan hartzea**.

Herritarren aurreko betebeharrak

- ✓ Prozeduraren **hasierako faseetan** herritarrei **informazioa** ematea; informazio hori, erabakiak hartu aurretik eskaini beharko da edota, beranduen jota, posible eta arrazoizko izan bezain laster, honako gertaerei buruzko informazioa eman:
 - Ingurumen-baimen Integratuaren eskaera (edota horren berriztatzeko nahiz aldaketa).

- Kasuan-kasuan, eskaerari dagokion ebazpena ingurumen eraginari buruzko ebaluaketa bati (estatukoa nahiz horren mugaz gaindikoa), edota Europar Batasuneko estatu kideen arteko kontsultei lotuta dagoela jakinarazteaz.
- Honakoak **identifikatzea**:
 - _ Prozeduraren inguruko ebazpena emango duen organo eskuduna.
 - _ Informazio egokia eman dezaketen organoak.
 - _ Oharrak, alegazioak eta kontsultak jaso ditzaketen organoak, bai eta horiek guztiak aurkezteko epea.
- Egindako eskaerari dagokion ebazpenaren izaera juridikoa edota, hala badagokio, ebazpen-proposamenaren izaera juridikoa.
- Ingurumen-baimen Integratua berriztatu edo aldatzeari buruzko xehetasunak, hala badagokio.
- Informazio egokia eskuratzeko **data** edota **tokia**, bai eta horretarako **bideak** ere.
- Herritarrei informazioa eman eta kontsulta egiteko modalitateak.

- ✓ Ingurumen-baimen integratuak eman edota aldatzeko **administrazioak emandako ebazpenak publiko egitea** eta **herritarren esku** honako informazioa jartzea:
 - Erabakiaren edukia, Ingurumen-baimen Integratuaren eta horren baldintza nahiz ondorengo eguneratzeen kopiak barne.
 - Administrazioaren ebazpenak oinarri moduan hartu dituen arrazoi eta ohar nagusiak jasotzen dituen memoria bat, herritarren parte-hartze prozesuari buruzko informazioa barne.




Pertsona interesdunen aurreko betebeharrak

- ✓ Interesa dutenen **eskura jartzea, dagokion epean**, honako datuak:
 - Interesdunei informazioa eman behar zaien unean dagokion agintari eskudunari igorritako txosten eta irizpen nagusiak.
 - Interesdunentzat informazio-epea bukatuta eskura daitekeen bestelako informazio oro, baldin eta eskaera ebazteko orduan garrantzizkoa bada.

Interesdunek, organo eskudunari nahi beste ohar eta iritzi jakinarazteko eskubidea izango dute, **eskera ebatzi aurretik**, betiere.





Informazio publikoa bestelako ingurumen-baimenetan



GENETIKOKI ERALDATUTAKO ORGANISMOAK (GEO) BORONDATEZ ASKATZEKO BAIMENA

9/2003 Legeak¹⁴ informazio publikoko tramitea ezartzen du GEO borondatez askatzeko baimen-erregimenari dagokionez (12.2 art.) eta konfidentzialtasuna eta herritarrei eman beharreko informazioa (20. art.) ere bai.

JARDUERA SAILKATUENTZAKO UDAL-LIZENTZIA

Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorrak¹⁵, jarduera jakin bat ezartzeko eskaerari buruzko espedientea **15 egunez jendaurreko informaziopean** jartzeko betebeharra ezartzen die Alkateei, eragina jasan lezaketen pertsonak alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten. Dagokion Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean egingo da jakinarazpena; ondoren, pertsonalki emango zaie horren berri jarduera kokatuko den lekutik gertu bizi diren herritarrei.

¹⁴ Apirilaren 25eko 9/2003 Legea, genetikoki eraldatutako organismoak modu mugatuan erabili, borondatez askatu eta merkaturatzeari buruzkoa (2001/18/CE Zuzentaraua egokitzen duena). BOE 03.04.26

¹⁵ EHAO, 98.03.27

EMAKIDA ETA BAIMENEN INGURUKO PROZEDURAK, UREN ARLOARI DAGOKIONEZ

Uren emakida orokorra, jabari publiko hidraulikoaren ustiapen orori zuzendutakoa

Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak¹⁶, **jendaurreko informazio** tramitea ezartzen die emakida-eskaerei nahiz proiektatutako obrei (109. art.); horretarako, ohar-iragarkia argitaratu beharko da dagokion probintziako Aldizkari Ofizialean. Horrez gain, obrak burutzen diren edota urak erabiltzen diren Udalerrietan jarri beharko dira ikusgai.

Arroko Erakundeak argitalpen horren eremua zabaldu ahalko du, egoki ikusiz gero; horretarako, bestelako komunikabide batzuen bidez (egunkariak, etab.) hedatuko du ohar-iragarkia.

Ohar-iragarkiak, emakida eskatu duenaren izen-abizenak, emaria eta eraginpeko udalerriez gain, bestelako ezaugarri nahiz inguruabarrak adieraziko ditu eta azalduko du, ea erabilera-publiko aitorpena eskatu den, nahitaezko desjabetze eta zortasuna ezartzeari dagokionez.

¹⁶ Apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua. BOE 86.04.30

Jendaurreko informazio tramitea **hogei egun naturalekoa izan** beharko da gutxienez, probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Epe horren barruan, eragina jasaten dutenek espedientea eta dokumentu teknikoak aztertu ahalko dituzte aroko Erakundean; bertara igorri beharko dituzte, idatziz, epe horretan egin beharreko alegazio guztiak.

Ohar-iragarkia jendaurrean erakusteko agindua jaso duten Udaletako Alkateek, tramite hori bete izana adierazten duen **egiaztagiri** bat bidali beharko dute aroko Erakundera; horrekin batera, jasotako alegazioak biltzen dituen txosten bat ere bidaliko dute.

Jabari publiko hidraulikoan isurketak egiteko baimena

Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak **30 eguneko jendaurreko informazio tramitea** exijitzen du, 247. artikuluan, probintziako Aldizkari Ofizialaren bidez gauzatu beharko dena.

Itsaso eta lehorren arteko jabari publikoa babesteko zorgunea erabiltzeko eta lehorretik itsasora isurketak egiteko baimenak ematea.

196/1997 Dekretuak¹⁷ **20 eguneko jendaurreko informazio tramitea** ezartzen du (16. art.); horretarako, iragarki bat jarri beharko da Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean, edozein pertsona fisiko nahiz juridikok espedientea aztertu eta dagozkion alegazioak egiteko aukera izan dezan.

HONDAKINAK EKOIZTU ETA KUDEATZEKO BAIMENA

Hondakinei buruzko oinarriko legeriak **ez du gai honen inguruan inolako administrazio-prozedurarik arautzen jendaurreko informazio tramiteari edota interesdunei entzunaldia eskaintzeari dagokionez**. Hala ere, hondakinak ekoiztu eta kudeatzea dela-eta ingurumenean eragina izan dezaketen jarduera guztiek **jarduera sailkatuen udal-lizentzia** edota **ingurumen-baimen integratua** behar dute; horrez gain, **ingurumen-eraginaren ebaluazio-tramitea** egin behar izaten dute kasu askotan. Aipatu azken prozedura horietan badira parte-hartze publikoari buruzko betebeharrak arautuak.

¹⁷ Abuztuaren 29ko 196/1997 Dekretua, itsas-lehorreko herri erabilerazko babes-zorpeko aldean erabilpenetarako eta lehorretik itsasorako isurketak egiteko baimenak emateko jardunbidea ezartzeari buruzkoa. EHAO 97.09.23

